

BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

5961

EBAZPENA, 2021eko azaroaren 16koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, zeinaren bidez ebazten baita garapenerako lankidetzaren kargura ekintza humanitarioko estrategietarako laguntzak emateko 2021eko deialdia.

Ekainaren 18ko 90/2019 Dekretuak garapenerako lankidetzaren kargurako ekintza humanitarioentzako laguntzak arautzen ditu, eta bi jardun-tipologia bereizten. Batetik, ekintza humanitarioko proiektuak, krisi humanitarioen eraginpeko pertsonak babesteko direnak, eta, bestetik, ekintza humanitarioko estrategiak, epe ertaineko eta aurrekontu handiagoko esku-hartzeak direnak, zeinek, aipatutako babes-ekintzez gain, erakunde humanitarioak sendotzeko eta euskal herritarrek sentsibilizatzeko bestelako ekintzak ere jasotzen baitituzte.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren 2021eko uztailaren 19ko Ebazpenaren bidez (2021eko irailaren 2ko EHAA, 175. zk.) egin zen garapenerako lankidetzaren kargura ekintza humanitarioko estrategietarako laguntzak emateko 2021eko deialdia.

Deialdi-ebazpen horren 4. artikulua ezarritakoaren arabera laguntzak emateko egin den proposamena ikusita, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Koordinazio Teknikoaren Zerbitzuak laguntza-eskabideak baloratu eta eskabide horien azterketa teknikoa egin eta gero, eta 2021eko azaroaren 16ko batzarrean Artezkaritza Kontseiluari horren berri eman ostean,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honen I. eranskinean jasotako erakundeei ematea Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren 2021eko uztailaren 19ko Ebazpenaren bidez deitutako laguntzak, eranskin horretan aipatutako zenbatekoan eta eran.

Bigarrena.– II. eranskinean ageri diren erakundeen laguntza-eskabideak ukatzea, eranskinean bertan ematen diren arrazoiengatik.

Hirugarrena.– III. eranskinean ageri diren erakundeen laguntza-eskabideak baztertzea, eranskinean bertan ematen diren arrazoiengatik.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, jende guztia jakinaren gainean egon dadin.

Bosgarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraz, haren aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Gora jotzeko errekurtsua aurkeztu denetik hiru hilabete pasatzen badira ebazpenik eman gabe, errekurtsua ezetsizat hartu ahal izango da, eta administrazioarekiko auzien bidea zabalik geratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 16a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.

2021eko azaroaren 24a, asteazkena

I. ERANSKINA
DIRUZ LAGUNDUTAKO ESKABIDEAK

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Izenburua	Herrialdea	Puntuak	Dirulaguntza (euro)
EHE-2021BA/0003	Fundación Mundubat-Mundubat Fundazioa	Reducción de la vulnerabilidad y fortalecimiento de la capacidad de resiliencia de población palestina de Jerusalén Este	Palestinako Estatu	74	622.658,40
EHE-2021BA/0011	Asamblea de Cooperación por la Paz	Estrategia localizada de Nexo para la protección integrada de los derechos y la dignidad de la población palestina bajo ocupación conforme al DIH y el DIDH, con énfasis en la equidad de género, la protección de la infancia y la RRD	Palestinako Estatu	72	800.000,00
EHE-2021BA/0002	Fundación Alboan	Atención Humanitaria Integral en contextos de migración forzada, refugio, y protección internacional en Centroamérica	Costa Rica – El Salvador – Nikaragua	71	798.511,26
EHE-2021BA/0001	Farmacéuticos Mundi	Estrategia Regional para la atención de situaciones críticas de salud pública, incluida la violencia sexual basada en género, de la población afectada por la crisis humanitaria de la República Democrática del Congo.	Kenia – RDC – Uganda	66	800.000,00
EHE-2021BA/0009	Asociación de Amigos y Amigas de la R.A.S.D. de Álava	Implementación de un sistema de depósito y recogida semi-selectivo de residuos domésticos en Bojador	Argelia	62	553.664,16
EHE-2021BA/0005	Asociación Comité Español de la UNRWA	Estrategias de empoderamiento para reducir la vulnerabilidad de las mujeres refugiadas de Palestina en Líbano (Fase II)	Libano	61	797.076,96

2021eko azaroaren 24a, asteazkena

II. ERANSKINA
UKATUTAKO ESKABIDEAK

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Izenburua	Herrialdea	Arrazoia
EHE-2021BA/0004	Nazioarteko Elkartasuna-Solidaridad Internacional	Ayuda alimentaria, y gestión medioambiental en diez asentamientos informales del sur de Líbano	Líbano	Funtsak agortzeagatik
EHE-2021BA/0006	Asociación España con ACNUR	Empoderamiento socio-económico de las mujeres en las provincias de Kivu Norte y Kivu sur en un contexto de lucha contra la violencia en RDC	Kongoko Errepublikoa Demokratikoa	Funtsak agortzeagatik
EHE-2021BA/0007	Cruz Roja Española	Respuesta humanitaria y promoción de protección, de las personas refugiadas de Sudán del Sur y de las comunidades de acogida en Sudán, en el estado fronterizo del Nilo Blanco, Sudán	Sudan	Funtsak agortzeagatik

2021eko azaroaren 24a, asteazkena

III. ERANSKINA

BAZTERTUTAKO ESKABIDEAK

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Izenburua	Herrialdea	Arrazoia
EHE-2021BA/0008	Fundación Unicef Comité Español	Fortalecimiento de un sistema integrado de gestión de casos sensible al género para niñas y niños no acompañados y víctimas de violencia en el noreste de Nigeria	Nigeria	Ez dira betetzen deialdiaren ebazpenaren xedapen gehigarrian eta 4.2 b) artikuluan jasotako baldintzak: 2021eko ekitaldian erakunde batek jaso ditzakeen dirulaguntzen gehieneko zenbatekoarena eta ekintza humanitarioko estrategia bat onartzeko eskatutako gutxieneko zenbatekoarena.
EHE-2021BA/0010	Fundación Save The Children	Contribuir a mejorar las condiciones de vida, la resiliencia ante la inseguridad alimentaria y nutricional y los conflictos, y la cohesión social de las poblaciones más vulnerables en la región de Gao, Mali	Mali	Tokiko bazkideen inskripzioari buruzko 90/2019 Dekretuaren 6.2 artikuluan jasotako batekizuna ez betetzeagatik